



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN  
UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA  
DE  
ARRANKUDIAGA  
(BIZKAIA)

**2020KO OTSAILAREN 27AN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK  
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

---

**BERTARATUTAKO  
ZINEGOTZIAK**

=====

**ALKATEA**

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna. (EH Bildu)

**ALKATE ORDEAK**

Lehenengo alkate ordea, Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderea.(EH Bildu)  
Bigarren alkate ordea, Mainer Biritxinaga Malaina anderea. (EH Bildu)

**ZINEGOTZIAK**

Mikel Abrisketa Izquierdo jauna. (EH Bildu)  
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna. (EAJ/PNV)  
Ane Miren Esparza Montalban anderea.(EAJ/PNV)  
Izaskun Barrenetxea Izagirre anderea.(EAJ/PNV)

**IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA**

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

2020ko Otsailaren 27an, 15:34ak izanik, hasiera ematen zaio ohiko osoko bilkurari.

**1. 2019KO ABENDUAREN 30EAN EGINDAKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HORRELA BADAGOKIO.**

**Aprobación si procede del acta de la sesión celebrada el 30 de diciembre de 2019.**

Aho batez onartzen da aipatutako egunean egindako osoko bilkuraren akta.

**2. 2020 URTERAKO UDAL-JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN, 1) EPIGRAFEAREN (JABARI PUBLIKOA HAINBAT INSTALAZIOREKIN OKUPATZEA), IBILGAILU ELEKTRIKO EDO HIBRIDOAK ETA ANTZEKOAK HORNITZEKO INSTALAZIO EDO GAILUEKIN OKUPATZEAGATIK EZARRI BEHARREKO TARIFAREN ALDAKETA.**

**Modificación de la tarifa por ocupación de vehículos eléctricos o híbridos y similares del epígrafe 1) (Ocupación del dominio público por diferentes instalaciones), de la Ordenanza reguladora de las tasas por ocupación del dominio público municipal para el año 2020.**

Udal Idazkariak hurrengo txosten-proposamena aurkezten du, osoko bilkurak eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

**Udal-jabari publikoa okupatzeagatik tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeari buruzko ebazpen-proposamenaren txostena:**

**IKUSITA.-** 2019ko abenduaren 19an, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 242. zenbakian, behin betiko argitaratu ziren 2020ko ekitaldirako zerga-ordenantzak Arrankudiagako udalerrian.

**IKUSITA.-** Udal jabari publikoa okupatzeagatik tasak arautzen dituen Ordenantzaren 1. epigrafeko (Jabari publikoa instalazio desberdinengatik okupatzea) ibilgailu elektriko edo hibridoak eta antzekoak okupatzeagatik tarifa aldatzea egokitzat jo dela.

Horrela, m<sup>2</sup>-ko eta urteko, ezarritako 100 euroen ordean, 31,25 euroko tarifa aplikatzea

**Informe-Propuesta de resolución en relación a la modificación de la ordenanza reguladora de las tasas por ocupación de dominio público municipal:**

**VISTO.-** Que el 19 de diciembre de 2019, se publicaron en el Boletín Oficial de Bizkaia número 242, definitivamente las ordenanzas fiscales para el ejercicio 2020 en el municipio de Arrankudiaga.

**VISTO.-** Que se ha considerado pertinente modificar la tarifa por ocupación de vehículos eléctricos o híbridos y similares del epígrafe 1) (Ocupación del dominio público por diferentes instalaciones), de la Ordenanza reguladora de las tasas por ocupación del dominio público municipal. De esta manera se propone aplicar por m<sup>2</sup> y año, en vez de los 100 €, establecidos, la tarifa de 31,25 €.

proposatzen da.

**IKUSITA.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikulua ezartzen duela osoko bilkuraren eskumena dela ordenantzak onartzea. Beraz, osoko bilkura denez organo eskuduna, onartzeko jarraitu beharreko prozedura Bizkaiko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan dago jasota, eta honela dio hitzez hitz:

Toki-korporazioek beren tributua ezarri, ezabatu eta antolatzeko eta tributu-kuotak zehazteko beharrezkoak diren elementuak finkatzeko hartzen dituzten behin-behineko erabakiak, bai eta dagozkien zerga-ordenantzen onarpenak eta aldaketak ere, erakundearen iragarki-oholean jarriko dira ikusgai hogeita hamar egunez; egun horietan, interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

#### **EBAZPEN-PROPOSAMENA:**

**LEHENA:** udal jabari publikoa okupatzeagatik tasak arautzen dituen Ordenantzaren 1. epigrafeko (Jabari publikoa instalazio desberdinengatik okupatzea) ibilgailu elektriko edo hibridoak eta antzekoak okupatzeagatik tarifaren aldaketa onartzea.

Horrela, m<sup>2</sup> eta urteko, ezarritako 100 euroen ordean, tarifa berria 31,25 eurokoa da.

**BIGARRENA:** hogeita hamar egunez, erakundearen iragarki-oholean eta BAOn ikusgai jartzea, interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu dituzten.

**VISTO.-** Que el artículo 22 de la Ley de Bases de Régimen Local establece que es competencia del pleno la aprobación de las ordenanzas. Siendo por lo tanto el pleno el órgano competente, el procedimiento a seguir para la aprobación viene recogido en el artículo 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre de las Haciendas Locales de Bizkaia, que literalmente dice:

Los acuerdos provisionales adoptados por las corporaciones locales para el establecimiento, supresión y ordenación de sus tributos y para la fijación de los elementos necesarios en orden a la determinación de las respectivas cuotas tributarias, así como las aprobaciones y modificaciones de las correspondientes ordenanzas fiscales, se expondrán en el tablón de anuncios de la entidad durante treinta días, dentro de los cuales los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

#### **PROPUESTA DE RESOLUCION:**

**PRIMERO:** Aprobar la modificación de la tarifa por ocupación de vehículos eléctricos o híbridos y similares del epígrafe 1) (Ocupación del dominio público por diferentes instalaciones), de la Ordenanza reguladora de las tasas por ocupación del dominio público municipal.

De esta manera por m<sup>2</sup> y año, en vez de los 100 € establecidos, la nueva tarifa es de 31,25 €.

**SEGUNDO:** Exponer en el tablón de anuncios de la entidad y en el BOB, durante treinta días, para que las personas interesadas podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

Idazkari jaunak azaltzen du, Iberdrolak Xarmantako aparkaleku publikoan ezarri behar duen kotxe elektrikoak kargatzeko gunea dela eta, gaur egun indarrean dagoen tasa aplikatuz gero, eurek dituzten aurreikuspenentzako diru larregi dela.

Proposatzen dute, gehienez urtean 1.200 € ordaintzeko prest daudela. Urtero KPI igota. Beraz, orain proposatzen den tasa berria, diru kopuru horri egokitzen da.

Jose Beaskoetxea jaunak (EAJ/PNV) komentatzen du, eurek tasa altuago bat proposatu behar zutela, baina ikusita momentuz aukera bakarra Iberdrolarena dela eta zein dan euren proposamena, onartzen dutela proposatzen den aldaketa.

Alkate jaunak (EH Bildu) esaten du, kotxe elektrikoak kargatzeko gunea jartzeko Iberdrolari jabari publikoa okupatzeko 10 urteko lagapena egin zaiola eta baldintza batzuk alde bien aldetik adostu direla. Horretaz gain, Iberdrolak prestasuna agertu duela eraginkortasun energetikoaren inguruan eta kotxe elektrikoaren inguruan hitzaldi bat antolatzeko Arrankudiagan. Aztertzen ari dira eguna hitzaldirako.

Udal jabari publikoa okupatzeagatik tasak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketa aho batez onartzen da.

### **3. OXINBURU ERAIKINA ERABILERA SOZIAL ETA KULTURALETARAKO BIRGAITZEKO EGIKARITZE PROIEKTUAN SARTUTA DAUDEN LANEN EXEKUZIOA AURRERA ERAMATEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAREN AZTERKETA ETA ONARPENA.**

**Debate y aprobación del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares de las obras comprendidas en el Proyecto de Ejecución para la rehabilitación del edificio Oxinburu para usos sociales y culturales.**

### **4. OXINBURU ERAIKINA ERABILERA SOZIAL ETA KULTURALETARAKO BIRGAITZEKO EGIKARITZE PROIEKTUAN SARTUTA DAUDEN LANEN EXEKUZIOA AURRERA ERAMATEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAREN ONARPENA.**

**Debate y aprobación del Pliego de Condiciones Técnicas de las obras comprendidas en el Proyecto de Ejecución para la rehabilitación del edificio Oxinburu para usos sociales y culturales.**

3 eta 4 puntuen eztabaida batera egiten da.

Idazkari jaunak azaltzen du, Obraren diru kopurua dela eta, udal osoko bilkurari dagokiola bai plegu administratiboak zein teknikoak onartzea. Beraz, osoko bilkuraren deialdiarekin batera pleguen testuak helarazi zaizkie zinegotziei aztertzeko.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ/PNV), galdetzen du, zeintzuk izan dira aurkeztutako azken testutik egin diren aldaketak.

Idazkari jaunak azaltzen du, aldaketak proiektua egin duten arkitektuak proposatutakoak dira. Lehenego eta behin aurrekontua aldatu dela. Ez kopuru orokorra, horrek jarraitzen duela 1.317.981,80 €-koa izaten baina bai partiden arteko kopuruak aldatu direla. Bestalde batetik esleipena egiteko irizpidetan puntuak banatzerako orduan aldaketak egin dituzte ere, beti ere irizpide teknikoen arabera. Eta gutxieneko puntu kopuru bat ezarri dela (15) irizpide teknikoen arloan.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ/PNV), esaten du eskaintzak aurkezteko epea ere aldatu dela, lehen bi hilabetekoa zela eta orain 45 egun agertzen direla.

Idazkari jaunak esaten du, hori errakuntza bat dela, orain hilabete bakar bat dela. Urtea aurrera doa eta, 2020 urtean nahi bada obrak bukatzea epeak murriztu behar direla.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ/PNV), aipatzen du, aurrekontua egiterako orduan BEZ-a ez dela ondo agertzen, proiektuarekin batera aurkeztutako dokumentazioan %10-ekoa dela agertzen delako eta pleguan, %21-a.

Idazkari jaunak erantzuten dio, hori ere errakuntza bat dela, pleguan agertzen diren kopuruak ondo daudela eta BEZ-a %21-ekoa izan behar dela mota honetako obra batean.

Bozkatu baino lehen, Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ/PNV) esaten du, euren taldeko kideek kontra bozkatuko dutela. Proiektu honen inguruan jakina da euren jarrera, ez dute uste lehentasunezko obra bat dela Arrankudiagan eta horren ondorioz pleguen kontra ere bozkatuko dutela. Era berean galdetzen du, ea proiektuak, eraikina eginda dagoenerako, mantenimendua eta fubtzionamenduak suposatuko duen kosten aurreikuspenik egin den.

Alkate jaunak (EH Bildu), erantzuten dio, momentuz ez baina horretan ari direla.

Bozketa: alde; 4, EH Bilduko udal taldeko kide gutziena. Kontra, 3, EAJ/PNV kideen botoak. Beraz, onartzen dira Oxinburu eraikina erabilera sozial eta kulturaletarako birgaitzeko egikaritze proiektuaren plegu administratiboak eta teknikoak.

## **5. SINATUTAKO ALKATE DEKRETUEN KONTU EMATEA.**

**Dación de cuentas sobre los Decretos de Alcaldía firmados.**

Hurrengo alkate dekretuak sinatu dira:

119-2019: Concesión de Autorización de Transporte Regular de Uso Especial (Escolar).

120-2019: Contratacion Sevicio de Limpieza edificios públicos.

121-2019: Contratacion Sevicio de Limpieza edificios públicos.

122-2019: Solicitud licencia para la colocación de una barandilla en Bº Atxeta nº23, Arrankudiaga.

123-2019: Contratacion Sevicio de Limpieza edificios públicos.

124-2019: Concesion de Ayuda de Emergencia Social.

125-2019: Aprobación definitiva del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución 2 de Zelaiko (U.E.2.Z).

126-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para rehabilitación de tejado en Ustara, 2 .

127-2019: Solicitud de licencia municipal de obra para cambio de ventanas y aparatos sanitarios en Elexalde, 18 4º E .

128-2019: Contratación de servicios para la recuperación de la memoria histórica de la Guerra Civil en Arrankudiaga-Zollo.

01-2020: Solicitud de licencia municipal de obra para reparación de txabola en Ustara .

02-2020: Concesión de pago fraccionado de las liquidaciones pendientes de pago del impuesto de vehículos de tracción mecánica.

03-2020: Devolución de aval depositado en relación con las obras de cambio de iluminación del campo de futbol a Ekoleds Innovations, S.L.

04-2020: Solicitud de información acerca de las edificaciones existentes en la parcela 102 del polígono 002, en el barrio Andoleta, de Arrankudiaga.

05-2020: Solicitud de devolución de aval por utilización del camino municipal de Ustara a la carretera foral BI-625.

06-2020: Solicitud de devolución de aval por utilización del camino municipal de Zollo-Elexalde a la carretera foral BI-4521.

07-2020: Solicitud de licencia municipal de obra para reforma de cocina y construcción de gallinero en Atxeta, 17.

08-2020: Contratación de un servicio asesoramiento técnico y/o urbanístico por parte de arquitecto superior.

09-2020: Corrección errores del contrato para la contratación de un servicio asesoramiento técnico y/o urbanístico por parte de arquitecto superior, por el ayuntamiento de Arrankudiaga y Zollo.

10-2020: Imposición de multa coercitiva por incumplimiento de orden sobre restablecimiento de la legalidad urbanística en relación a la implantación de un invernadero en el barrio Beaskoetxe de Zollo.

11-2020: Suspensión de las obras de la línea aérea de transporte de energía eléctrica a 400 kv, denominada Gueñes-Itsaso sin preceptiva autorización en materia de protección del medio ambiente.

12-2020: Suspensión provisional de la actividad que se desarrolla en el pabellón nº 20 del polígono de Bakiola por no contar con la pertinente autorización.

Ane Miren Esparzak (EAJ/PNV), galdetzen du 119-2019 dekretua dela eta, ea ze nolako baimen motaren ingurukoa den. Alkate jaunak erantzuten dio, eskola-garroia dela eta, udalak baimendu behar dituela herrian egiten diren geldialdiak.

Ane Miren Esparzak (EAJ/PNV), galdetzen du 128-2019 dekretuaren inguruan. Itziar Duoandikoetxea andereak (EH Bildu) erantzuten dio, burdinezko gerrikoa dela eta, ibilbideen inguruko informazioa emateko euskarriak egiteko kontratazio bat dela, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako kontratario bat.

Ane Miren Esparzak (EAJ/PNV), galdetzen du 04-2020 dekretuaren inguruan. Hau da, zertara datorren mota horretako informazio eskaera eta ea zer gertatzen dan bertan dauden eraikinekin. Idazkari jaunak erantzuten dio, hirigintza arloan, informazioa herritar guztientzat eskuragarri egon behar dela eta udalaren beharra dela mota horretako eskaereri erantzutea. Horrek ez du esan nahi lurzoru horretan dauden eraikinak ilegalak direla edo legez kanpokoak, aztertu beharreko egoera bat dela eta horretan ari direla zerbitzu teknikoak orain.

Josu Beaskoetxeak (EAJ/PNV), galdetzen du 11-2020 dekretua dela eta, Gueñes eta Itsaso lotzen duen goi tentsioko linearen harira, ea ez den nahiko Foru Aldundiaren aginduarekin obrak gelditzeko. Idazkari jaunak erantzuten dio, nahiz eta Foru Aldundiaren agindua egon, goi tentsioko linea jartzeko obrak jarraitu dutela, beraz, bere iritziz, egokia dela udalak ere erabiltzea dituen baliabide juridikoak, gutxienez Zollo inguruan obrak gelditzeko.

## **6. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

### Ruegos y preguntas.

Josu Beaskoetxeak (EAJ/PNV), komentatzen du, kaletik zehar txakurrak solte edo behar den ez bezala eramaten dutenei, zer edo zer esan ahal zaie edo neurriak hartu ahal diren. Idazkari jaunak erantzuten dio, ordenantza bat egin daitekela baina arazoa dela herrian ez daukagula Polizia Munizipalik eta beraz zaila izango dela kontrolatzea norik betetzen duen eta are gehiago neurriak hartzeko derrigortzea. Horren harira, Alkate jaunak (EH Bildu), esaten du, Laudioko Ertzainetzeko nagusiarekin egon dela eta euren prestazuna agertu digula beharrezkoak diren arloetan. Hau izan daiteke komentatzeko gai bat.

Osoko bilkura bukatu baino lehen, alkate jaunak, martxoaren 8-ko data dela eta, udal talde biak adostutako erakunde adierazpena irakurtzen du:

## **MARTXOAK 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna**

ARRANKUDIAGA eta ZOLLOKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA  
1952an martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituztenak. Borrokek aldaketak ekarri dituzte legeetan, gizartean eta kulturean, eta gizarteak berdintasun- eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte.

Hala ere, emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste.

Beijing Ekintza Plataformak 25 urte bete dituenean, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak irudikatzeko borrokan, inor bazterrean utzi gabe. Munduko mugimendu honen ustez generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarrizko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria. Garapen Jasangarrirako Helburuetan jasotzen den bezala. **Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da.**

Emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek instituzioei **konpromiso** irmoko ariketa egitea eskatzen digute:

- Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan.
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea.
- Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturean parte hartzeko.
- Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea.
- Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik, **ARRANKUDIAGA eta ZOLLOKO Udalak konpromiso irmoa adierazi du berdintasunezko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, tokiko bizitzan pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen gizartea.** Norabide horretan aurrera giteko honako neurri hauek abian jartzeko asmoa adierazten du:

- Udalerriko emakumeen baldintzak eta egoerak aztertzea baliabide, ondasun eta zerbitzu guztiak eskuratzeari dagokionez, bai eta tokiko bizitzan parte hartzeari dagokionez ere, desberdintasunak identifikatu eta zuzentzeko.
- Udal kontratazio publikoan klausula sozial eta genero klausulak txertatzeko plan progresibo bat diseinatzea eta abiatzea.
- Tokiko arauak arian-arian artikulatzea berdintasun-politikak garatzeko, eta udal-jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea.



- Tokiko berdintasun-politikak bultzatzeko langile eta baliabide nahikoak dituen egitura egonkorra edukitzeko urratsak egitea, toki-mailan edo beste udalerrri batzuekin elkartuta.

Udal honek dei egiten die herritarrei Emakumeen Nazioarteko Egunaren kariatara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.

Arrankudiaga eta Zollo, 2020ko otsailak 27

Eta jorratzeko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio bilkurari, 2020ko otsailaren 27an, 16:42etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatzen du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut:

Y sin más asuntos que tratar, la presidencia da por finalizado el acto, siendo las 16:42 horas del 27 de marzo de 2020. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.

---

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**